


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
59n. ZENBAKIA
ZEMENDIA
(AZILLA)
— 1982 —

ELEIZ-GIZONA
MISIOLARIA
EUSKAL-ZALEA
EUSKAL-IDAZLEA



Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

GIZON, EUSKALDUN ETA FEDEDUN

ZER aldizkariak zenbaki au, oraintsu joan jakun Estonba'tar Manuel idazlearen omenez argitaratzen dau. Omen au ez da zorra ordaintzeko, berak gure aldizkarian egin dauan ordaintzerik inondik be ez daukagulako eta gaiñera berak sekula ezelako ordainñik eskatu ez daualako. Orurogei ta amasei idazlan, bakoitxa orrialde batekoa, idatzi dauz ZER'en, gitxi gorabera erdiak ipuiñak eta beste erdiak gizaundien bizitzak. Ordaintzerik ez ba'da be, gitxienez, esker ona agertzea dagokigu.

* * =

«Gizona naz, eta gizabideko ezer ez jat besteren» esan eban antxiñako jakitunak era ori esan eikean gure Estonba idazleak be: Adimen argia, naimen sendoa, biotz ona izan dirala esango neuke bere osotaunaren izaerarik berezienak; eta artuemonetara begitu ezker, besteak onartzea agertzen dala uste dot lenengo: Edozeñek aurkitzen eban beragan adiskide on bat.

Eta irudimen aundikoa be ba-zan. Kondairari buruz berak egiten ebazan berba-aldietan, eta asko egiten ebazan, ez zan jakiten zein zan kondairako jakingarria eta zein bere irudimenaren jazkia eta geroari bagira be ez zan erreza ames utsak eta benetako eginbideak bareiztea. Eta ames aundia eginbide ta egite biurtzen maixua zan.

* * =

Gizonen artean, Manuel gizon euskalduna genduan, euskalduna jaiotzaz eta euskalduna biotzez. Ez eukan, egia esan, burruka-zalekeririk, ez gogorkerirako jokerarik. Naiago eban egunero ta beti ekintzaille izatea.

Bere euskaltasunak, gizontasunaren barru-barrutik urtena izateaz gaiñera, beste iturri bizi ta ugari bat eukan: Euskaldunen kondaira ezagutu izatea. Iturri ori zan bere euskaltasunaren bizi-emoille. Ori bere eleberrietan ikusi daiteke, bere IZARTXO'n eta bere EUSKAL ARRANOA'n.

Euskaltasun au ekintza biurtu eban bere idazlanetan, giroa txarra zanean lan isilla ta bizia egiñaz, bere ingurua, batez be abade-gaien artean, euskaldundu eban. Jokabide onek samin-aldi bat baiño geiago ekarri eutson eta, zori txarrez, jokabide ori ontzat artu bear ebenen aldetik.

Eta Urkiola'n, taldekide lez egin eban euskal-lana, guztientzat da ezaguna.

* * =

Euskaldunen artean, Manuel fededun genduan. Euskaldun fededun ez da guztientzat oiñarriko egia, baiña bai Manuel'en bakarreko ta alkatereko bizitzarako: Gizon, euskaldun eta fededun izatea ondo alkartzen dira Manuel'egan gizon on bat osotzeko.

Euskaltasuna ta fedea zelan alkatu daitekezan ondo aztertzen dau IZARTXO bere eleberrian, kondairan oiñarritua eta bere jokabide ori argia zalako bizitzako elburu lez abade-lana, mixiolari-lana, aukeratu eban.

Aldi baten, Casimiro Morcillo gotzain zala, eta aldi orretan izan ziran len aitaturiko samintasunak, kanpotik ekarrirako abadeak izan ziran gotzaininguruan nagusi, eta Manuel, geu euskaldunok be emen gagozela eta olako lanak egiteko gai garala agertzeko, kanonigutzara aurkeztu zan. ZER onetan ba-da idazlan bat gai au argitzeko.

* * =

Amaitzeko, ZER'egaz izan dauzan artu-emonen kondaira laburra: Pozik entzun eban aldizkari au argitaratzeko gogo aundiala eta ille bakoitxerako lan bi eskatu geuntsozan. Ontzat artu eban berak eskari ori eta zintzo bete dau.

Azken-aldian gitxiago idatzi dau, baiña il baiño egun batzuk lentxuago auxe esan euskun: Lanen urritasunik ba'dozue esan, eta urrengo egunean bialduko dautzuedaz. Eskertzekoa, benetan, olako gogo!!!

Eta gure Manuel joan egin jaku. Agur isil onek beti emoten dau samintasuna, baiña baita poza be, bere egitekoa ondo bete dauan gizon baten ondorenak emoten daben poza, jarraitzailleak izango dauzalajakitearen poza.

GURE MANUEL

SAMINTASUNA

Urkiola'tik gitxitan, oso gitxitan urteten naz, baiña iraillaren 22'an Naparroa'n nengoan. Gure misiolagun eta gaur Zister'eko Lekaide dan Elgezabal'dar Patxi, izan zan emen Oliba'tik etorrita 21'ean, eta otoitza gai lez erabili ta otoitz egin ondoren, lekaide-etxera lagundu geuntson egun orretan.

Bide batez Agiñariz'ez dagozan eta adiskide aundiak jakuzan Arka-Alkartekoai ikustaldia egin geuntsoen.

Manuel, Luis eta Jesus itzi genduzan etxean egun orretan, 22'an. Agiñariz'era eldu giñanean taxi bat etorri jakun eta txoferrak emon euskun *Manuel'en* eriotzearen barria.

Nati'k eta Balen'ek negarrari emon eutsoen eta besteok, geure burua sendo agertu gurean, negarmalkoai eutsi.

Arka Alkartekoakaz batera Gure Aita esan genduan zelaian bertan, baiña otoitz ori ez jakun betikoa izan.

Urkiola'ra biurtu giñan arin-arin. Etxea isillik eta triste egoan. Bere gelan, Manuel ogean, luze, otz eta bizi barik, alba ta estola zuria jantzita.

Une ikaragarria izan zan... Luis bederatzita ta erdietan *bere gelara joan* zan eta ilda aurkitu eban. Gabaz il zan, antza. Biotz-estua izan ebala esan eban osagilleak.

Ordutik aurrera urrutizkiñez deiak eta deiak. Arin zabaldu zan barria.

Gabean, Garaigordobil'dar Biktor Mai-Buru zala gorpua-aurreango alkar Mezea egin genduan, auzokoak eta adiskide batzuk lagun. Gero Santutegira eroan genduan gorpua eta an izan urrengo egun guztian otoitza ta gorpua-ikertzea.

ZEREGIÑAK

Egia esan, 22'ko arratsaldera arte ez nintzan larregi kontuan jausi zer izan zan jazorikoa.

Ara ta ona ibilli-bearra izan reban: Urrutizkiña, illeta-gertatzea, arazoak... Ez neban izan eriotza ori neuganatzeko erarik.

Arratsaldean urreratu nintzan Santutegira, gorpua-ondoa egon-guraz, otoiz egiteko asmoaz. Ordu bi egin nebazan beragaz bakarrik.

Orduan konturatu nintzan benetan gure Manuel il egin zala. Otoitz egin neban, otoitz asko, ulertu-eziñeko gauzen aurreko otoitza, eskerrak emotekoa.

Arratsaldean urreratu nintzan Santutegira, gorpua-ondoa egon-guraz, otoiz egiteko asmoaz. Ordu bi egin nebazan beragaz bakarrik.



ILLETEA

Arratsaldeko zazpiretan egin genduan illetea. Iru gotzain (Uriarte, Setien eta Garaigordobil) eta 91 abade altareinguruan. Beste asko Santutegia beterik eukan jente-artean.

Urkiola'ko illeritxuaren *aurrean*, *Agur Jauna* abestuaz, amaitu genduan. Agur Manuel!

GOGOZ ALKARTUTA

Ni ez nintzan izan Gaztelu (Arte) 'n, Manuel irakasle izan zanean. Lagunai orduko jazokizun asko entzun dautsedaz. Ekuador'en batera izan giñan, baina an be ez told baten, bera El Oro'n eta ni Lor Rios'en eta Anbato'n. Baiña Manuel'en barri alai asko artzen genduan beti.

Urkiola-n beti izan gara batera, 12 urtetan, alkarbizitzan eta dana guztiena izan dogula. Eta emen jazokizun alaiak ugaritu *egin* dira. Baiña jazokizun alai orreik alde batera itzi eta Manuel nitzat zelakoa izan zan esango dot.

BIZI - GUREA

Manuel'ek bizia maite eban, biziari atsegiña artzen eutson. Gizonak 130 urtetan bizi bear ebala esaten eban. Guk ez genduan uste adin orretara elduko zanik bera, baiña zar egingo zala bai. Gurari aundiaz billatzen eban biziaren indargarri zan dana. Odola barrizatzeko asunak be jan ebazan iñoz, gaztetuteko osakiak artu be bai...

Zeregiñaz baiña estutu barik bizi *bear zala esaten* eban. Eta orrelan bizi zela zirudian.

Pozik eta atsegintsu jaten eban, baiña estuegi iñoz eskatu barik. Beretzat mairako ordua garrantzi aundikoa zan: «Ordua, ordua da» esaten eytsen berandu etorten ziranai.

Manuel jateko eroatea pozgarria zala diño emen auzoko batek Janari ona zein zan ba-ekian.

Ez genduan uste, ba, ain arin joango jakunik.

BAIEZKORRA

Manuel baiezkorra zan, geiagi bear ba'da. Beretzat dana zan ona, dana egoan ondo. Ez ekian ezetz esaten.

Gizonengan eta gauzetan beti alderdi ona ikusten eban. Ez zan etorkizun illunaren aztuak lakoa. Larriumeak ez eutson eragin aundirik egin. Bera bizi zan tokia munduko onena zan beti, naiz Machala naiz Urkiola izan. Urkiola onena eta euskaldunak onenak. Eta orrelan danean.

JAINKO - GIZONA

Gogo-bizi aundikoa ta esku-zabala zan. Aldakuntzak ikutu txikia egiten eutsoen. Errez egokitzen zan. Bere gogoa janaritzeko idazle bi ziran gurenak: Teillard de Chardin eta Orixe.

Zebatetan irakurri ete dau Orixe'ren «Jaunaren billa»! Beti izaten zan bere mai-gaiñean liburu au eta ez eban besterik bear bere gogo-bizitzarako.

Naste aundi bakoa ta buruko min gitxikoa zan bere gogo-bizitza.

ESKU - ZABALA

Esku-zabaltasunean eredu izan dogu beti. Egia esan, iñoz ez eban ezer falta izan, baiña gure gizarte asko-bearreko onegandik urrin egoan. Ez eban ezer bear, ez eban gastatzen ezetan, eta gitxiago bere nai-kerietarako.

Ez ekian ze diru eukan be. Gasturik geieneko egunak erregeen ingurukoak izaten ziran. Atsegin jakon errege izatea eta berak beteten ebazan gure ate-aurreetako zapatak.

Aundikeri bakoa zan eta esku-zabal bizi izan da.

ADIÑA TA IRUDIMENA

Zurtasuna ta tolesbakotasuna batera eukazan eta jakintsua zan. Bere bizitzako ordurik geienak bere gelan idazten eta irakurten igaro ebazan eta egun askotan jateko ta otoitz egiteko baiño ez genduan ikusten.

Bere jakituria ez genduan iñoz zalantzan jarri eta gauza batzutan ez-jakin egoala uste izan arren, dana jakiten eban.

Baiña jakituriatz batera, sarritan, bere irudimena ta baiezkortasuna agertzen ziran. Zenbatetan adarra joteko esaten gentson bere kondaira gaiak «ipuinsaiñekoak» ziralal

Bere baietz ziurrai sarritan barre egiten geuntsen. Danari emoten eutson erantzuna, zalantza barik, eta berbaldiak naiz eleiz-lanak egiteko be errez emoten eban baietza. Ez zan barruestua, leiaketa askotara sartu eta irabaztea izaten zan bere ametsa.

ADISKIDEA TA BAKAR - ZALEA

Adiskide-zalea zan eta orduak igaroten ebazan etozanakaz berbaz, batez be euskereari, euskal-jakin-tzari, kondaira ta kondaira-aurreari begira.

Arin egiten zan lagun. Eta gugaz ain adiskide egin zalako etxeko lez bizi zan. Zabala, lagun-zalea, amesezko izketa-laguna zan.

Baiña bakar-zalea be bai. Orduak egiten ebazan bere gelan bakarrik.

IZADI - ZALEA

Banetan maite eban izadia. Inguruko mendi guztiak ikertu ta aztertu ebazan eta landarak atsegin jakozan.

Izadi isillaren barruan ibillaldiak egitea, aize garbia artzea, bitxi-lorak eta perretxikoak batzea... bere jolasak lez ziran.

Eta zelako samintasuna emoten eutson landara bat apurtuta ikusteak!

Izadia zaintzeko ta obetzeko ziran ekiñaldiak, ostera, bere pozbide ziran.

EUSKALZALEA TA JOLAS - ZALEA

Euskalzalea zan gure Manuel, eta aspaldiko bere irakurteak bide orretakoak ziran. Asko maite eban Euskalerria ta euskerea, arlo orretan izan zeitekezan utsak eta akatsak ez ikusteraiño. Euskal-giroko edozer gauzarik audientzat artzen eban.

Jolas-zalea be ba-zan, batez be ostikoketa ta esku-pelotea zituan biotzeko.

Olako joko-aldirik urrutikuskiñean zanean, ez egoan ikusi barik izteko eta edozeiñek aterako dau zein joko-taldetara joian bere biotza.

AINTZATSUA

Beti izten eban gauzak egiten, iñoz oztopo izan barik. Aitita on baten antzera bideratu eikean. Eta ondo egiñak biotzez poztuten eban.

Gizon aintzatsua ta zorionekoa izan da. Orixe esan eban D. Biktor'ek, adiskide baten berbak aita-tuaz, illetatik urrengo igandean izan zan mezatan. Beti adiskide-artean, beti lagunen babesaz..., eriotz-orduan eta illeta-egunean be olakoxea izan da Manuel.

GOIAN BEGO

Zer geiago Manuel'eri buruz eguneroko jazoeretara sartu barik?

Etxeko baten eriotzeak lez mindu gaitula bereak. Urkiola'n bizi izan garan guztiok, arrituta itzi gaitu bere ustebako eriotzeak. Jaungoikoagandik lagun-tzaille izango dogula uste dogu.

Eta asi nazan lez amaitzera noa: GURE MANUEL, gurea izan zan eta gurea izango da. Goian bego!

LEGARTZA'tar Joseba'ren jakingarriak

EKINTZALLE

A. ZUBIKARAI'K

IDAZLEA ONTASUNAZ

Gizon ona zan.

Bere irribarre txiki-bitartez igarten jakon nor zan.

Derio'n ezagutu neban. Urtetan ni zarrago, bat eta erdi.

A gin andi, ule zuriak tartetan.

Beti irribarrez, beglakin be barea erakutsi nalan.

Irundarra.

Irun'en entzutea euki eben gure gaztaroan «Buenos Amigos» taldeak.

Ango giroa, espiritua ekarren.

Gaztetasuna, anaitasuna eta alaitasuna.

Derio'n egoala erderazko liburu txiki baiña mamitsu bat argitaratu eban: Detxepare'ren bizitza. Irundarra izanik, ango gazteen taldeko sortzailleari deduzko omena. Erderaz. Gazteentzat tengada, ekarria eukan. Atsegiñez irakurten eben abade-gai gazteak.

IZARTXO TA KULISKA

Eta Derio'n idatzI eban bere lenengo euskal eleberri edo nobela: Izartxo.

Ia ez da iñor gogoratzen «Itxaropena» argitaldariak «Noni eta Nani» gaz asi eta urte luzetan, eta txarretan, euskerari eusten egin eban lanaz.

Urte estu eta zital areitan egindako euskal lanik geienak an agertzen ziran, «Kuliska sorta»n, euskeraren maitasunez, ez ezelako irabaziz. An Azpeitia, Erkiaga, Etxaide, Etxaniz, Jauregi, Lekuona, San Martin eta ainbaten lanak. Ez ziran asko irakurri, arpidedun asko «karidadezko» laguntzailleak ziralako. Erdaldunak. Zela-ala euskereari laguntzen eutsela esatelo arrotasuna eukenak, nai ta liburuak zabaldu barik gorde. Gure akatsa, pekatua ez esatearren.

Derio'n, ango abadekien artean, betik asi zala euskera esaten da. Beko aupada eta indarrez, goiko arnas eta laguntza barik.

DERIO'TIK LOS RIOS'ERA

Orrelakoetan barrua kezketan egoten da eta urteera emon bear. Orrela, bitarteko denporallei igeska, Aita Manuel (ala deitzen eutsen danak) bere gelan sartzen ei zan eta bere espirituari arnasa artzen laga.

Orrela sortu zan «Izartxo». Euskeraren kanpoko utsunea, euskeraz barrutik beteteko.

Eta arautz'en laga eban, ango Itxaropena'n, abadetzako ametsak libertadez bete al izateko aukera billa Los Rios'era mixiolari joan zanean.

Ia ogei ta amar urte dira ordutik.

IGES ETA BILLA

«Izartxo» bigarren gizaldiko ele-zarra da, berak esaten dauan lez.

Zegaitik Estonba'ren zaletasuna lengo denporetako gaietara?

Nik uste dot igesaldi lez, egungoz legaten ez zanari, biurria biltlatzearren.

Berberak gogoratzen dau alako «Epheta, quod est adaperire, in odorem suavitatis» bere atal baten esatean.

GIRO TXARRA

Bigun-bigun, baiña zabaldu. Au da, azkatu.

Ori zan, izan be, euskaldunon joko, ezer egingo ba'zan, 1940-1960 urtetan.

Gogoan daukadaz guk Ondarrodan erabilten genduzan komediak «Seaska inguruan» gabonetako irudiak antzezututeko. Antzestu bear bakoitzean zentsuratik pasatu bear, euskerarik ez ekien zentsuratik. Eta gabonetako irudiak ziran, mundu guztian bake aitez agertzen ziran Irudi ezagunak. Eta mundutik laterrik katolikoenean gengoan, paperetan beintzat.

Errez zan ezer ez egitea, egotan trabak aitzaki ipiñita. Eta zorritzarrez ba dira orrela jokatu ebenak. Baiña euskeraren egarri



Urkiola'n 11 urtetan.

bizi ziran euskaldun askok ez ete eben merezi zerbait eroan eta erakusterik?

EGINI

Beragaz egoten nitzanean, bere aolkua au izaten zan: egin Auxtin. Olaxe deitzen eustan.

Zelako euskera erabilten eban? Gozoa, jatorra, garbia eta erreza.

Kardaberaztarra zan. Esatea lez don Manuel Lekuona'ren eskolako. Ze ikasi a erabili.

Eta gaurko euskeraren joeran euki ete eban «argaltasunik», bere jatorrizkoa aldatzeko?

INDARKERITXU BAT

Ara anekdota bat: Dirala urte batzuk Aurrezki-Kutxa batentzako liburu bat gertu eben Arrinda (Donato) eta berak. Eta euskerazkoan h batzuk sartzeko eskatu eutsen, obeto esanda h'gaz Idazteko.

Aita Manuel keixatu zan. Berak, ordurarte, sekula ez eban orrela idatzi. Ez ekien nun sartu be.

Eta berak baiño nasaitasun geiago eukan Donato'k esan eustan.

Ez adi estutu mutil! Ik idatzi euskeraz eta nik erderaz, eta h'ak neuk sartuko dodaz.

Eta alaxe egin ei eben.

Jakiña, Aita Manuel'ek betiko bere irribarreagaz kontatuten eban orl.

A. Zubikarai'k

AGUR ON MANUEL

EUZKADI'RA BEGIRA

Venezuela'n igaro dodaz nere zentzundun urterik onenak.

Orain, urte mordoskak nere lepoan arrastaka daroadazan lez, aspaldi ontatik emen, nere jaioterrian, Ondarru kuttun onetan nago gure jaunak gura nai daben arte.

Urtez, osasun onakin aurkitzen naiz ta ezer egin barik ez egoteagaitik, or Ibiltzen naiz al dana egiten gure izkuntzaren alde, erri izkuntzaren alde, nere amaren magaletik ikasi neban lenengo berbetaren aide, erriak, erri osoak, betik gora itz egiten dauan izkuntz maitearen alde, sasi-euzkaldun berrri «jakintsu» ziztrin orrei aurrez aurre jarkirik.

Irail il guztia Venezuela'n igaro izan dot, oso luze iruditu jatan Venezuela'ko illabete ori. Errimiñez baterik gengoan, bai emaztea eta bai ni. Eriotza eltzen dan lez, gure etorrerako eguna ere eldu zan-eta, emen gagoz barriro zerbait egiteko asmo oso utsakin.

POZAK ETA KEZKAK

Gure etorreran, Sondika'n aurkitu gintzanean, bata bestearen irribarre begikorra azaldu genduan. Barruko nasaitasun bizikera baten jaube egin gintzala zirudian, aberri miña kendu genduan baiña bai laster saminddu ere aldi ontan ainbat euzkalzale jatorren eriotza izan dala jakiñik.

Gure EUZKERAZAINTZA onek, arerio askori jarki bearra dauka, idazle bearrez dagon EUZKERAZAINTZA au, gure euskeragaitik lan asko egiten ba'dago, elizgizonei eskerrak, oraindiño gure izkuntz gaxoa iraunkor dago baiña, zoritxarrez igarri barik, gixitzen goiaz.

BETIRAKO AGURRAK

Venezuela'ra Joan aurretik, On Galarraga Uzkudun, Errexiltarra eta On Plazido Mujika josulaguna joan ziran betiko gure aldetik, nalgabez beñik bein azken— orduko agurra omotera joan nintzan, ta orain, neure pozgarrizko etorrera-

kin, ara nun esaten dausten Elortza, Juaristi, Aldanondo eta Estonba elizgizon jaun ospetsuak ere, betiko bizitza ohera joan ziralala, Jaungoikuaren jaurespenakin.

ON MANUEL ARTEGA

Dana dala, gure Jaunaren magalean ondo artuak izango ziralala, ez dago zalantzarik.

Estonba, gure On Manuel Estonba aba jauna, Urkiola'n ezagutu neban, nere ustez gizon osasuntsu eta naiko gordiña, izkuntza errezekua eta gomuta onekua.

Iru illabetearen bat izango dira azken-aldi ontan ikusi nebala.

An, Urkiola'ko eliz-etxean, aparri antzeko janalditxo bat egin genduan eta alkar-izketa atsegingarrikoa izan zan berarekin. Egon nintzan alditxo ortan, ikusi neban ba bere arrenkura, ardura edo kezka guztia zan gure izkuntz gauaren egoera.

Sabin gure irakaslea suntsittutea gaitik ataratako asmakizunak dirala ezkerarren asmo txar guztiak, jakiñik etorkizun illuna ikusten eban.



Urkiola'n izadi-zale.

AGUR

On Manuel jauna, gure garaiko euzkaldun geienak lez, EUZKADI'tik alde eginda ibilli ziñan or Rios ortan, Jaungoikoaren alde biotzak zabaltzen, baiña zure azken urteak, zeuk gura izan dozun lez, zure euzko lur maite ontan atsedendu dira.

Egon zaitez ba Jaungoikoa'ren onespén baten, eta, guk, nik beñik bein, jarraituko dogu lanean gure izkuntz gaxuaren berpiztuera lortzen.

Goian bego ba On Manuel Estonba jauna, AGUR.

GORRI

BETIKO AGUR

Gure aizkide Manu Estonba jun da betiko gugandik:

bere irripar gozo-etzia ez da agiri inñundik.

Seme langille, argizorrotza galdu du ziñez Euzkadlk.

Euskera Ama be negarrez dago, negarrez dana mindurik.

Biotz gartsundun, gogo argidun, euzkal idazle trebia, itun ta goibel geratu laku gure ZER aldizkaria. Esakun zorrotz, ipuin politik izkera legun-bizia: beti gogoan izango dogu on Manuel aizkidia.

A berrian ta Amerikan be Jainkoaren izenean, zoli ta arduraz ibilli izan zan gogoan alde lanean. Euzkadi eta Euzkerarekin maite-minduta osoan, sutsu ta gartsu ekin zun beti gau ta egunez arloan.

Agur aizkide, agur Manuel, izan zoruntsu zeruan, zu eredutzat arturikan gu geratzen gara munduan. KARDABERAZ TA EUZKERAZAINTZAK beti izango zu goguan: zuri jarraituz ekingo dabe EUZKERA-alde lan sutzuan.

Goiria

GAUZAK ETA EGUNAK

JAUNA DEIKA

Lagunak izan gara beti, apaizgai izaten asi giñanetik ona. Saturran'go seminarioan, laugarren urtean: —Mixiolari ba'zoaz, neu ba joango naz.

Urteak pasatu ziran, biok irakle eta partidua erabekiten pelotaz Derio'ko seminarioan: —Manuel, nik mixioetara joateko bai-mena ba-dot.—Txo, alkarrekin joango gozak.

Larunbata zan. Domekea pasatu zuan arrazoibideak asmatzen. Astelenez Gotzaiaren aurrean agertu zan eta baietza lortu be bai. 1956 urtearen iraillaren 4'ean irten genduan Guayaquil'era «Reina del Pacifico» itsas-ontzian.

MISIOLARI

Lanari autsi etenik gabe; baiña, barruko pakea galdu barik. Matxala, El Oro'ko iri nagusia, Ecuador'en. Bertan Gotzai-ordeko izan zan beti. Bertan egin zitunak onek dira: katedrala, gotzai-jauregia, apaiz-etxea, ikastola, mojentzako etxea, zortzi edo bederatzi kapillatxo, elizak Matxala-inguru guztian, kiroltegia... Guztiak amaitu eta sekulan dirurik ez patrikeran. Lorik galdu barik.

ARTZAIN

Bein batean Gotzaiak eman bear zuan erretiro-eguna mixiolari-iei. Baiña, Gotzairik etorri ez. Orduan berari esan geutzon itzaldiak emoteko.

Ez zan bape estutu. Erlojua mai-gaiñean eta besterik ezerbez.

Artzaintzako bere jakinduri guztia agertu euskun: ardiak nola jaitxi, gaztaiak nola egin, ulia nola ebagi, artillia nola egin, belardiak, artzai-txakurrak eta abar... Ez al ziran ba guztiak artzai?

URTENBIDE BAT

Matxala'n gure izenak ziran Taita Manolito eta Taita Donatito. Eun kilotik gora bakoitzak. Aldi batean, gauero-gauero, goizeko ordu bietan agure bat ate-joka etzean:

—Taita Manolito, longurarik ez dot.

—Nik, bai.

Taita Manolito, oean aspertu egiten naz.

Ni, ez.

Olan gaba asko pasa ondoren, bein esaten dautso Taita Manolito'k:

—Txo, logurarik ez ba'dok eta Dean aspertzen ba'aiz, joan kiroltegiara eta kendu bertatik arri batzuk, olan logurea etorriko jak eta^Pea gozo irudiko jak...

Ez zan geiago agurerik agertu.

LANA TA ERRIA

Bere despatxua eta lan-gela beti itezate eraginda, irikita: autsa, beoa, zaratea, automobillak, karnioak... eta bitartean bera maki-Zaz idazten gelditu barik:


—Taita Manolito, katedralerako jurnia ekarri dabe.

—Taita Manolito, dirutxua biar logu zementoa erosteko.

—Taita Manolito, bataio-agiria; ura neuke...

Eta Manuel'ek, pake santuan; uzteiei erantzun eta ondoren segi nakinan idatzitako esanaldia amaitzen.

Orain illabete batzuek dirala Vmanuel it zalaren zurrumurrua



sortu zan Matxala'ko errian. Egun auetan andik etorri zan monjaliada bat eta esan oiek gezurrak zirala agertzeko, fotografiak ugari atara eutsozan, gero an Matxala'n oraindik bizirik zala agertzeko.

Equadorerako egazkiña artzera Madrid'ERA JOAN ZAN MOJATXUA. Biletia eskuan ebalatzean etorri jakon albistea:

Taita Manolito'ren illetak ditugu gaur arratsaldean.

Donato Arrinda



Landajueta'tar Andoni
Euskaldun eta euskalzalea
ZER aldizkari onetan
lankide ta idazlea
1982'ko urrillaren 19'an
joan da Jaunaren etxera.

G. B.

AZKEN-IDA ZTI BI

EUSKAL USAINA

Gizon bizkorra zan. Seminarioan erakusle ere bai.

Zenbat apaizgai sortu ote zitzairen euskalsena Manuelen eskutik? Badakit Ander Manterola eta Mikel Zarate, beste batzuen artean, bere eskuetatik pasatu izan zirela apaiztegia...

Bere biotz zabaletik euskal usaina zerion eta berarekin ibilli ezker, kutsutu egin bear nai-ta-nai ez...

Buru zuzena

Seminarioan apaizgaiak Geografia eta Historia ikasi bear al zuten? Ederki. Asi gaitzen Euskalerritik. Naiz eta programetan egon ez, lenengoko lana orixe izango da.

Orain ori errez egiten da edonun, giroak ala eskatzen bait du; baiña orain ogeita amar urte, ez zan ain erreza.

Mundu osoara buruzko Geografia eta Historia zitun sakondutako gaiak eta orretan maixu zan.

Orrek laguntzen zion gero Euskalerriko gaiari buruz... Euskal gaiak zitun benetan maite. Oietxek ziran bere «hobi» guztiak, Euskeratik asita.

Euskeraren arloan sari asko zitun irabaziak eta oiek ez ditut nik emen aipatuko, lan berezi bat merezi dutelako eta jasoko al du bateren batek gai ori.

Nik emen aren bi liburu, aizkenekoak, aitatu nai ditut.

LOS VASCOS: EUSKAL KONDAIRA

Au lenengoz aitatu det. Bear ba'da auxe izango da Manuel'en biotza geien poztu zuan bere lana eta bi arrazoi auketatik: alde batetik, arin-aranga egin bear izan zutelako eta bestetik, aren zabalero ikusgarriagatik.

Abenduaren 13 'an egin zuan bere eskabidea argitaratzailleak. Euskalerriko kondairaren laburpen bat bear zuan eta len-bai-len bear ere.

Abenduan eskatutako liburua, Ilbeltzaren ama-bosterako egiña zegoen.

EPE LABURRA

Gabonetako festeetan, turroi artean, eratu zitun aurretik berak egin da zeuzkan lan batzuek. Aueri beste zortzi atal erantsi zien, lana osotuzeko.

Bere mixiolari lagun izandako Donato'k erderara itzuli. Orrela bien artean agertu zuten liburua.

Urte artako apirillean, lenengo egunetan, zabal-kundea asi zan eta zabaltzen asi eta egun gutxi barru, ia eun milla ale zabaldua zeuden Bilbo'ko etxeetan.

Ikusgarria, benetan. An egon bear izan biak beuren izenak liburueri ipintzen: firma botatzen, alegia.

INGLESERARA

Bilbao-Argitaldarian eskatu zioten Donato'ri liburua inglesera itzultzeko baimena, Iraillaren 21 'an. Berri ori ez zitzaion Manuel eri eldu. Gaba orretan «biar-arte eta gabon» esan ondoren oeratu zan. Ez zan oetik geiago jeiki.

Beraz, Estomba'ren liburu orrek bi itzul-aldi izango ditu: Bata gaztelarara eta bestea ingleserara.

ETNIA VASCA


Ona bigarren liburua. Ez da berak bakarrik egiña; baiña, bere azkeneko lanak emen daude.

145 atal ditu liburuak. Oietatik irurogei Manuel'ek egiñak. Nik amaika kapitulu eta nere anai Donato'k beste guztiak.

Irarkolan, moldetegian, dago lan ori eta La Gran Eiclopedia Vasca'k aterako du argitara.

Manuel'en eriotzaren bezperan, Gloria Castresana, Fresno'ko (California) Ikastola Nagusiko irakasleak, liburua gaitik ikusi ondoren, ingleserara itzultzeko baimena eskatu zion nere anaiari. Iraillak 21. Arratsaldea. Manuel'en belarrietara ez zan barri ori eldu.

Anes Arrinda



OROIPENAK

GIZONA

A bai gizona: Gorputzez zabal-
la, gogoz zabalagoa; buruz, argi;
gogamenez, gogamentsu; ontasun-
ez, on-ona; biotzez, aundia; si-
nismenez, sinimentsu; euskaldun
jatorra; euskal-zaletasunez, porro-
katua; gure izkuntza, euskera,
barru-barrutik maite ebana;
euskera-lanean, aspergabea; apal-
tasunez, apala; berak egiten eba-
nari, garrantzi aundirik ez, baiña
bera emoten ekiana; bere euskal-
lanak arrokeri barik agertzen eba-
zana.

ABADEA

A bai abadea! sinimentsua,
zintzoa, ekin-zalea; eleiz-lanetan
laguntzaille ezin-obeia, danen ser-
bitzari, beti prest, beti gertuta, an
edo emen utsune bat beteteko.

Arratia'ko eleiza askotan ibillia,
batez be baseliza edo ermitetan.
San Blas'en edo Santa AGE -
DA'n, Oba'n edo Lamindano'n,
Aranzazu edo Zeberio'n, aor gure
Don Manuel Meza santua esan
eta itzaldia egiten.

Txanburu bat etorriko zanaara-
ko ermitan Meza ta itzaldia egite-
ko abade bat bear ebala. On Ma-
nuel pozik, alaitsu joaten zan eta
etxeratzen zanean, eroan eban
poza geituta etortzen zan. Ango
baserritarakin jarduanaldia izan
ebala Meza ondoren eta gero baz-
kari gozoa emon eutsoela. Berak,
On Manuel'ek esaten eban gazte-
leraz: «Soy el medio volante de
Arratia».

IRAKASLEA

Gaztelu-Elexabeitia'n, **ango**
Abadegaitegia'n irakasle ezagutu
gendu an.

Zelako irakaslea izan zan, bere
ikasle izan ziranak ondo esango
dabe.

An, Abadegaitegian, futbol-ze-
laia garbitu ta konpondu bear za-
la, pelota-tokia margotu bear zala,
tenis-tokia zelaitu ta tella-zatia-
kaz, austuta, leundu bear zala,
mendi-maldan sagar-landarak sar-
tu bear zirala (bost urteroko egita-
mua —plan quinquenal—, esa-

ten eban), an agintari ta eki-
ñean gure On Manuel.

KANONIGUTZARA

Gazteiz-Goterkia zatitu zanean,
Bilbo'ko lenengo Gotzain izan zan
Kasimiro Morcillo Jaunak Kano-
nigutzar ako leiaketak, azterkizu-
nak izentau zituan.

«ELEIZ-EDESTIA» gaia izan-
go zan. Iru illebeteko epea.

Gure Don Manuel, batak eta
besteak berotuta, aurkeztu zan,
bere izena emon eban. Iru illebe-
tean gertatu bear. On Manuel, or
daukagu, andik eta emendik libu-
ruak eskuratu-ta, jo ta ke, irakurri
ta irakurri, gogaitu barik, nekatu
barik, gogotsu, aspergabe, gerta-
tzen.

Asko ekian edesti edo kondaira
kontuan, baiña ori obetoago ikasi,
landu ta sakondu bear zan.

Egunak aurrera doaz. Laister
dator eguna epai-maikoen aurrera
aurkezteko.

Idazlanak gertua eroan bear di-
ra. Gure On Manuel, ez urduri,
baiña bai arduratsu. Berak eskuz
idatzitakoak amaitu dituz. Orain,
garbian jarri bear dira idazkai-
lluan.

Aor gagoz bera, Manuel, eta ni,
apal-ondoan, bere gelan. Gure la-
guna, patxaraz eserita, zigarroa
eskuetan, irakurri ta irakurri eta
nik, taka-taka, idazkailluan.

«Manuel! —nik— oneik aleman,
franzes, italiar idazleen izenak,
mesedez, astiro-astiro irakurri egi-
dazuz».

Eta berak, lasai, izkiz-izki, ira-
jurten eustazan.

«I, Manuel —nik— oneik izenok
esatean ez ete az naastuko?»

—Bai zera (Manuel'ek), orreik
esatea niretzat errezena izango
da.»

Ez dakit zenbat gaubetan la-
nean ari giñan.

LEIAKETEA

Eldu zan eguna, Leiaketak egi-
teko eguna (Egunkarietan olan:
Oposiciones a Canonigo).

Deustu'ko Josulagunen Ikaste-
txe Nagusian ain zuzen.

An agertu zan gure Estonba
jauna patxaratsu, ustetsu. Ainbat
lagun batu giñan leiaketak ikuste-
ra.

Eldu jako gure Don Manuel'eri
bere saioan ekiteko ordua. Aor
gure gizona, aor gure abadea, aor
gure laguna: papelak eskuetan,
baiña buruz bere itzaldia esaten;
bere agotik, parra-parra, iturritik
ura lez jario, ordu ta ordi luzean
itzak urten eben, an gagozanok
arriturik gengozala.

NOR IRABAZLE?

Bere leiakide edo aurkalaria
Abalos Jauna zan, ain zuzen Ma-
drilletik etorria (ala ekarria?).

Egunetan biok jardun eben eta
amaitu ziran azterkizunak.

¿Nor nagusi? ¿Zein irabazle?
Orduko egunetan Bilbo'n
Santiago-Parrokiko Txanburu zan
Etxebarria'tar Alejandro Jaun
agurgarriaren eretxia entzun gen-
duan: (*Nire eretxiz (eta sorbalda-
gaiñean burua zerbaiterako dau-
kagu), nire eretxiz Don Manuel*
Estonba askoz obetuago egon
da). Kanonigutza Madrilletik
etorriak, Abalos Jaunak, irabazi
eban. Edo emon eutsoen.

Gure Don Manuel orregaitik ez
zan kikildu, oztu, makaldu. Bai
zera... Bere leiakide Abalos Ar-
tea'ko Abadegaitegira balkaltzen
eroan eban.

Ene lagun On Manuel: Zure
areik amesak: Urlia Gazteiz'en,
berendia Donosti'n eta gu emen,
Bizkaia'n, Euskal-Erriko Eleizea-
ren Kondaira eder, garrantzi aun-
dikoa egingo genduke... Manuel:
ortik, zerutik, lagundu gure Erria-
ri, lagundu gure Eleizeari.

U'tar L.

GIZASEME URDURIA

ERRIAN ETA MUNDUAN

Gurasoak ez doguz geuk aukeratzeko, ezta jaiotz-tokiak bere. Geuk aukeratuak izan ez arren, baiña, biak maite ditugu, gurasoak eta jaiotz-erria. Maitasun au alan be geienik ez da sakona ta somatua izaten, ez dogu agerazten, ez azaldu ta nabarmentzen. Onek adierazo nai dau geure bizitokiaz ez gareala geiegi arduratzen, edo-ta irudimen estu erkiñaren jabe gareala.

Au gertatu oi jaku: edo geure erriaren itxitan irauten dogu iñora urten barik, geure zeru ertzaren ostean zer dagoan jakin bage, irudimenari egoak astin-azo barik; edo erritik alde zori obearen billa ta urriñerako bideak erre nai doguz, urriñaren deiak lilluraturik.

Gure adiskide biotakoa izan zan. On Manuel Estonba Irun'en jaio zan, eta Ameriketara luzaro mixiolari ibilli ondoren, oraintsu illa dogu Urkiola'n. Etzan bere sorterrian geldi bizi izan; apaiztu ostean, beste euskaldun zori-zale asko lez, A tlantik itxasoa igaro ta Los Rios mixiño-lurrera jo eban, Kristoren fede-azia bazter areitako arimetan erein nairik.

ATSEDENERA

Egia, ezin-egonak, udazken-aizeak orbel oriari lez, bultz-eragin eutson mixiño lurrera. Eguneroko bizitx-experientzi sentikorrez fede egarri diran gogoai laguntzen bizi ta asmotsu urte mordoa emon ondoren, Euskalerrira bihurtu zan bearrezko eban atsedeneren magalean urte batzuk egitera. Beste adiskide batzuek Urkiola gaiña aukeratu euskun. atsedenezelai alaikor. Berton ainbat urte arimazaintzan emonaz, igaro illean Jaunak berera dei egin eutson. Ni emendik urrin samar nentzen orduan eta etxeratu izpar baltz orrez jabetu nintzanean, benetako biotz zauskada artu neba-la esanaz ez diñot, ez, guzurrik.

Niretzat beti izan a adiskide on txeratsua, Urkiolaratu nintzan guztietan bere apaizkide ta nire



lagun agurgarriak ezertxo be kendu barik, maitekor artu ninduana. Sarri aurkitu neban eliz-lanetan eta kanpo aldeko garbiketetan, beti bait egoan gertu zerbait oratu ta egiteko. Ango txauburu zan, eta Urkiola'n ba-dago lanik bai elizan eta bai kanpoko bazterretan: elizeak, egia esan, ez dau aldakuntza txikia ezagutu azken amabost urteotan, eta kanpo-alde-tik, zein txukun dagozan gaur angoko bazterrak)

BIOTZEAN MIN

Umetatik izan naz ni Urkiola-zalea, gurasoak arako bidea erakutsi eusten eta. Egun eder asko emona naz bertan, zein bertako abadeai laguntzen eta zein etxe-koakaz naiz lagunakaz eguna emoten ara igonazl Gerratean be angok mendietan ibillia nozue. Nainoz iruditu izan jataz zoragarriak an inguruetako troka ta mendigaiñak: Amboto, Untzillaitz, Ezkubaratz, Mugarra... Baita Humboldt doixtarrak, beiñola, Urkiola'tik Mañari'ra jastean, aurrez-aurre eukazan aitz-mokil ederrak ikusirik, esan ebana be: «Suiza'ko atxarte izugarriak daukadaz begien aurrean,,.

Azkenengoz an izan nintzalarik, agustuaren 28 an, abadiñotaren urteroko jai-egun ospetsuz, meza ostean nun-zer-barri nebillera, albiste billa joan nintzakon, eta ak, On Manuel'ek, irribarrez nai-aiña izpar emon eustazan egun aretako ospakizuna zala-ta. Orduantxe alkar agurtu genduan azkenengoz. Gero, ez ustean, aren eriotza. Eta arrezkero, «biotzean min dut, esan bear Lizardi olerkariak lez.

* * *

Eder bekik emen neure biotz illeta adieraztea. Eta ez gizasemeen goraberrak —jaio, bizi ta il— bere esku zurrez darabiltzazanari baiño. Ak emona zan, Ak gure arteratua, Ak eroana... Guk, beti be, Ak naia egin bear; auxe ei da-ta santutasunaren erpiña; baiña guk makalok ezin ori, gogotsu beintzat, osoan bete; ez dogu nai geuk maite dogunik ilterik.

* * *

GUK EMEN BEAR

Garratz jaku, batez be, euskal arloan lankide izandako batek gu

bertanbera iztea; ezin dogu olakorik jasan negar egiteke. Kejaz daukagu Dabid erregea bere salmuetan, Agustin deuna... eta ainbat arima on joan jatzuz, Jauna, uluka ta negar-malkoz. Ez da arritzekoa, ba, nire zinkurin-aria. Ez al dira, izan be, euskal idazle geiegi, batzuk gazte ta beste batzuk adiñeko, gure lansailletik doazanak? Jainkoak bere altzoan nai ditu, antza. Guz, baiña, ez ete ditugu bear geure euskal alorrean? Or zenbat eroan ditun aurten bakarrik. Orixo dala-ta, beraz, nire illeta otsa.

* * *

IZARTXO

Euskal idazle genduan Estonba, eta ez makala. Iñoiz itandu neutson, zelan zan bera euskal idazle. Argi ta garbi ez eustan egundo be adierazo, beti zearkamearka, itzul-inguruka baiño. Au, orraitño, esan oi eustan: «Apaizgai nintzanetik neroian nik barruan idaz-griña». Ba-zituan lantxo batzuk garai artan egiñak be, eta arein artean berarti begiko jakon eleberri bat, geroago «Izartxo» izenez Zarautz'eko Itxaropena'k argitaratu autsona (Kuliska Sorta, 33-34'garren zenbakia, 1959). Euskal oituraz jantzitako nobela; goi-arnasa, aize ta gorainai geiegi barik, baiña polito antolatua, euskera gozo atsegiñean.

* * *

KONDAIRA TA IPUÑAK

Euskalduna beti dozu euskaldun, zintzoa baldin bada. Bardin dautso naiz bere jaiot-lurrean bizi egotez, naiz mixiño-bazterrean ara-ona dabillearik, naiz Urkiola gaiñ atsedean nare baketsuan lanari lotua egon. Euskaldun zintzoak egiaz, urruti bizirik be, maite dau bere erria, maite dau bere izkuntza. Estonba'ri urrintasunak geitu egin eutson erri-miñaren kezka ta ezin-egona, eta erri-miñarekin idazle-griña. Eta mixiño-oiñetik Bizkai'ko tontor miñegarri ortara aldatzerakoan, naioko asti, naioko gai izan eta euki eban barnean erri nairik ebilkion idaz-kemenari eskatsen eutson aizea emoteko.

Beraz, lengoaz gaiñera, luma artu ta eliz-arloak izten eutsozan

asti-uneetan, idaz-lanari emona bizi izan jakun. Beti urduri ta kezkatu; beti idatzi ta idatzi. Idazlanetan bere lurra jasoko eban; euskal erriaren istori-zati, ipuin eta elezarrak be gogoko jakozan, eta gaiok astintzen ditu geienbat bere artukulu ta nobelatxoetan. Ainbat sari artua dogu lanon bitartez. Santutegi ondoko bazterrak garbi ta txukun euki naietan, zotz, paper-mozkin, piper pote, zarama, loi-zikin eta abar batu bitartean, zer idatzi asmetan dabilkigu; bardin dago lo dagoala, jatorduan, naiz elizan, beti zerbaiten kezkatu: Jainkoa eta Euskalerrria ditu gogotan, aspertu bage. Orreik sortu dagioe barruan artegatasuna, egon-eziña.

* * *

ZER'EN LANKIDE

Idazle da, eta idazle danak edozer jaso daroa bere lanak edertu ta apaiz-azteko; barruoska dabilkion deiari erantzun bear jako. Ortan iraungo dau Estonba'k azkenengo unera arte. Idazle deian, zer orretan itxiko dau josia, itsatsia bere giz-izatasuna. Zuzenezko idazkera dau, eta darabil, jantzi dizditsu, amarru ta olakorik bakoa; ez dau geiegikerik gura. A ren edesti, ipuin eta lantxoak —ZER'en ainbat datoz— danak dituzu lau, errez ta biotz-dardaraz borobilduak, gizaseme urduritari dago-kionez. A ren lanak ethos (eredu jator) geiago izango dira pathos (biotz-birriara) baiño.

Ez eritxon ondo loraketan jarduteari, izkuntza illez joiala ikusiaz. Izkuntza biren tartean gabiltz, bata amaren altzoan ikasia ta bestea goitik beera ezarria diralarik. Ez goaz egokiro, burruka latzean baiño. Guretzat, ostera, geuk alkar ulertu ta adierazteko, oiñari ziur eta tinkoena, eliztizko iku-ari bakarra nunbait, amak erakutsi euskuna danik ezin daike iñok ukatu. Dala aberats naiz txi-ro, geure da, eta ez al da naiokoa ori? Ez itxura danez, bestela —au be sarri Moan Estonba'k— ez genduke ain errez zokoratuko.

* * *

URDURITASUNA

Ez dakit zer esan: gaur guztia nastau bearrean diardugu, baita izkuntza be. Ba-da urduritasunik or-emen. Zelakoa, baiña? Iraultza griña dogu oro. Baita izkuntzari buruz be. Egiazkoa, jatorra ala ez ain jatorra? Naiz-ta askok bestera aitzen emon, izan bekigu on jatorra! Bai bikaiña izkuntzazko urduritasuna! Alan be, ainbat arlotan urduri gabiltzala-ta, izkuntza-grinarik, kezkarik, urduritasunik ez ete dogu sentidu ta erakutsi bear?

Aspaldian ez-ta, aurtengo uda-amaierantza egun mordoska igaro izan dot Alikante aldeko Guardamar itxas-egalean. Asko giñan otelean, balenziarrak geienak, España guztikoak izan arren. Eta areik bai, balenziarrak, ikasbide ederra emoten ebela! Ia danak, nainun, balenzieraz mintzatzen ziran. Gure erdi-ugarte barruan gaztelaraz gaiñ itz egiten diran izkuntzak —katalan, balenziar eta galiziar— euren mintzatzaille txalogarriak ba'dabez, zergaitik guk ez geurea zaindu, jagon eta indartu? Egia esan, an inguruetan be ba-ebiltzan euskaldunak; Torre-veja'ko azokan, adibidez, tolosar jator bat aurkitu neban bere umetxoagaz euskeraz mintzatzen.

* * *

ESTONBA EREDU

Geure gauzen kezka ta urduritasuna falta jaku. Beiñena ez ete dogu beratu euskaldunok? Euskerra arloan beerakada izugarria emon dogula mundu guztiak diñoana da. Eta danak diñoanean, zerbait izango. Au, barriz, penagarria izan. Euskereari eutsi bear jakola-ta, goi ta bee zarataka, garrasika jardunik be, iñoizkorik motelen doakigu, iltzear daukagu. Zer dogu au? Kezkarik eza ez ete!

Egur ortakoa Estonba jauna. Ar daigun bera eredu; sort daigun kezka, artegatasuna, geure barruan aurrenik eta geure inguruan gero. Kezkak dakar lanerako griña.

AITA ONAINDIA

ALMENAK

ERLEA LEZ

Almen ederrak naiko artu izan ituan sorreraz. Egilea oparoa izan zuan irekin. Alan esan al ba'nengikek, euskaldun be bai.

Buru argia, biotz maitasuna, irudimen giartsua... onek izan ituan ire doetariko edertasun batzuk...

Nungoa intzan, berez, oarturik, erlearen estena izan intzan euzko izadi ta gizadiari euren edertasuna xurgatuz, euskal jendeari opaltzeko.

BIOTZ - ZABAL

Zenbat bider poztu izan ete ituan euzko irakurle arduratsuak, ire irakurgai biziak mamurtuta... Beti baiezkor... Erriari bere bizia agertu nairik... Egia, janaria, bizia erriko mendietan ta asabagandik arturiko geure gizadien egoala, ik, ondo ta ziur, ikusi al izan eban...

Ire biotza, gogoz, zabaldu eutsan, maite eban lur eta gizadiari.

ERRIA ETA ALMENAK

Gizontasuna dok, izan be, Egille berak emoniko lur ta jentetza ezagutu, onartu ta mitatzea...

Gauz biak, egoki, alkartu izan dituk ik. Almenak ta eure sorterria...

Bizitza bat Ian egiteko arturik, guztia izan az ire Egillearentzat sinismen zabaltzen... ta izkuntza eder bat ta bere bizia agertuz euskalerriarentzat.

ASMOAK BETETEN

Gazte gaztetatik gogo barrenean euskazan asmorik ederrenak betetu ta zabaltzen alegindu az. Ez alperkeriak, ez bildurak ez au atzeratu.

Euskalerra minberu ta maitati oni begira, mendi

onetako seme batek zer esan ete lei Manuel seme leialaren aurrean...

Lana, izerdia, otoia, maitasuna, euskera ederra, oparo, itzi deuskuz...

Gizon leiñargien buru ta biotza argiz eta onez asetu nai izan zituan...

Dana eginbear bat legez, dana norbere erria otseintzeko.

ERRIA JANARITZEN

Gizontasun ederragorik ba al'dago, zuzentasunez, erriari egiatzko janaria emotea baiño?

Erria argitu, erria ezi demagogizko zaratekaz ez da egiten, on Manuel'ek ori, ondo, ekian.

Aren janari emotea biguna zan, urdaillak eioteko eran. Sarritan, ipuin bidez... Euskal ipuiñak, erriaren jakituria... Bere gogoz, nai ta nai ez, iñori sartzea ez zan.

Aurkeztu, begien aurrean jarri. Beti, urko laguna, gizontsu, artu... Egiaren mamin ta indarra, aurrean, ipini.

Au da, gizaldien joan etorrian, euskaldun jatorreen artean ezagutu dan jokabide argiz beterikoa.

ASABEN SEMEA

Gure adiskide onek asaben jokabide ta jatortasunari, sarri, begiratu *eutsen. Jota, minduta*, edozein eratan, baztertu nai zapalduta, erria ez dala, ondo, ezten, garbi ta argiro, ikusten eban.

Euskalerra gizontsua, zure semeetariko bat zan Don Manuel. Zuregandik artu eban sinismena, gizon izatea ta erritartasuna.

Ta bere asmoa auxe izan da: Zuregandik arturikua, ispillu baten arpegian lez, zure aurrean, barrero, al eban erarik onenean jarri.

Paulin

ESTONBA

*Eskerrak Jainkoari...
Berarentzat aukera
zinduzan lurrean;
Oil ene lur maitea,
lora bikaina zeunkan
aritzeen artean.*

*Aitak maite zinduzan
eguzkiak lurra lez
loretan lorea;
almenez omldua,
mutil koxkor polita
txit eder zalea.*

*Aragizko zinan,
aingeruen ametsez
zeru lur erdian;
euskaldun blotza
zabal ta giartsua,
beti, ler-zorian.*

*Zure gogo santua
Eleizan ta errian
eskeini zenduan;
argia, osasuna
ezer ez zendun gorde
zuzetatzat kolkoan.*

*Artu zendun guztia
maitasun blurturik
oparl egin zan;
oro Jainkoarentzat,
guztia lur onentzat,
gogoz, urtu zinan.*

*Krlstoren oparoa,
gaur, zure alde z doa
egi biurturik;
zure lan ta jendea
maitasun txorta bat da
betiko bizirik.*

Paulin

IZARTXO

**ESTONBA'tar Joxe Manuel.
"Kuliska Sorta" 33-34.
Editorial Itxaropena. 1959.
177 orrialde**

Estonba jaunaren idaz-lanik geienak kondaira-lanak eta ipuiñak dira. Argitaratuta daukan eleberri bakarra, «Izartxo» da.

Goazen ba, al dogun neurrian, berau aztertzeraz.

1. SASOIA

Izen-buruak, liburuaren irugarren orrialdean diñoskunez, «Izartxo (bigarren gizaldiko ele-zarra)», eleberri onetako gertaera guztiak II'gn gizaldian jazoten dira. Erroma'n Augusto nagusi izan zan sasoiari: «Bai, Erko mutil ederra Erroma'tik etorri berria zan (...) Erroma'ra eraman zuten Augusto'en zaiko» (15'gn orr.) Kalagorri'n Adriano kaiser zala: «Eta oraingo Adriano kaiser'ren egun oetan...» (133'gn orr.) Gure errian kristautasuna eldu-barria izan zanean.

2. TOKIA

Eleberriko ekintzarik geienak igaroten diran iru toki nagusiak oneixek dira: Olearso (5-129 orr.), Kalagorri (129-158 ta 169-177'gn orr.) eta Aralar (158-169'gn orr.)

Eleberrian zear, Olearso'ko, edo inguruetako toki berezi batzuk be agertzen edo zeazten dira: Larrun'go tontorra (5'gn orr.); Lizardi etxea (6); Txurumuru'ko zoloa (14, 41-46'gn orr.); e. a. Baita Kalagorri (kristautasunaren ezaugarri) ta Aralar inguruetako beste batzuk be: Izarra (169'gn orr.); Lizarrago mendia (169'gn orr.); Toloño'ko mendiak (170'gn orr.).

3. NORKIAK

Norkirik beiñenak Izartxo, Erko, Basurdi ta Kisti doguz.

Norki oneen argazki zeatz bat, ez jaku eleberriko atal berezi batzutan egiten. Oneen itxura ta nortasuna, idaztiaren zear agertzen jakuz: Erko, «mutil lerdin»a da (13'gn orr.); Augusto'ren zaiko izandakoa Erroma'n, ta kristautasunera biurtua (15'gn orr.); «Erko'ren biotzondo ederra! Erko'ren on, apal, martzal eta lema» (47'gn orr.)

Basurdi, «Napar-mendietako artzai bat» da (48'gn orr.); «Dana dan

giarra ta trinkoa duk...» (49'gn orr.); «biotz gogorrekoa; burruka zalea, setatsua ta errea» (49'gn orr.); benetako basatia; izakera estu ta zarratuko; sorgin eta sorgikerietan ustea jarrita daukana.

Izartxo'ren gorputz-zeazketa txiker bat, ogei ta bat garren orrialdean aurkitu daikegu: «zirkin-zirkin zegiten uretan astal luze biribillak, eta gerrimeak, eta arpegi xaloak, eta buruko adats ugariak...»; baiña beste notiñetan lez, Izartxo'ren nortasuna eleberriaren zear azaltzen jaku: biotz biguneko neskea, samurra, Erko'ri eskerrak, kristautasunera biurtua.

Beste noriki batzuk: Xemein eta Muskilda, Izartxo'ren gurasoak; Usoa ta Aritz, Lizardi etxeko nagusiak; Xinko ta Xanko, Izartxo'ren neba bikoitzak; Lizar, Urdanibi, Aritziburu, Artsu, Kikixo, Urgoiti, Azkue, Erbi ta Arizti, Olearso'ko batzarrean alkarturiko jaunak; Kalagorri'ko gotzaina; Urdiñe, Izartxo'ren amabitxi; Lartaun eta Aitor jaunak; Mari Urraka; Basajaun; Tartalo; sorgiñak eta jentillak.

4. GAIA

Eleberri onetan gai bat baiño geiago agertzen jaku: ezkurretan (5'gn orr.); triku-siñeskerak (9'gn orr.); Sorgin-kontuak (idazti guztiaren zear). Baiña bi dira gai nagusiak: bata, eleberriaren ariara dardoana, ta bestea, ari-gai orren bitartez adieraz nai danna; «alegoria» bat izango balitz lez.

Izartxo ta Erko alkar-maiteminduta dagoz. Baiña Basurdi be Izartxo'gaz maiteminduta dago. Basurdi'k al diranak eta geiago egiten dau, Erko, bere ta Izartxo'ren begien aurretik aldentzeko: burrukaldi bat alkar aurrez-aurre (80-85'gn orr.); Olearso'ko batzar nagusiko jaun bi erosi nai, Erko'ren aurka berba egiteko (106-107'gn orr.); Aralar'ko Lartaun jauna atsipetu gura, Erko'ren aurka jokatzeko (158-163'gn orr.); e. a.

Azkenean, Basurdi ii egiten da: Erko ta Izartxo'ren arteko maitasunak ez dau oztoporik aurkitzen.

Au izango litzake eleberriaren ariara eutsiten dauan gaia.



ESTON13.7 Tsu JOXEE MINVEL

Bigarren gai-nagusia auxe da: euskal-izakerea (euskaltasuna) eta kristautasuna ez dira buztartu-eziñak: Izartxo, kristaua ez dana, kristautasunera biurtu, ta Erko kristau-gaz alkartzen da.

Ba dago beste ezaugarri polit eta berezi bat be, auxe, ber-berau adierazten daukuna: Kisti'ren agerpena (Kristo'ren agerpena Euskalerrian) (168'gn orr.) Estonba jaunak, Kixmi'ren ipuina (1) artu, ta gaiari komeñi jakonez eratzen dau: Kixmi'ren izena aldatu egiten dau: «Kisti» jarriez; Aralar'en kokatuta dagoz edesti biak; biak dauke jaun nagusi bana: jentil nagusia eta Lartaun; Jendil nagusia, Kixmiren agerpena onartu ez eta, il egiten da; Lartaun, Kisti'ren etorrereak, poztu egiten dau (162-169'gn orr.).

5. ADIERAZLEA

Eleberri au gipuzkeraz idatzita dago.

Aditza geien baten ikan erabilten da; Xinko'k, Xanko'k, Olearso'ko jaunaren artean, oitura zan lez, eta edesleak izan ezik.

Joskereari dagokionez, On Manuel'ek, eleberri onetan, esaldi laburrak darabilz; esaldi alkarkidetu kooperatiboak nagusi dirala. Adi-bidez:

«011 arren kukurruku alayak eldu dira belarrietara... *eta* etxeko-andreen purra-purra biziak... *eta* arraitzen zirri-zarra gozoa... *eta* gurdien juin-juin luzea... (5'gn orr.); «Ortzik munduan diran izate on guziak, *eta* Odei'ek munduan agertu diran gauz oker guziak. Eta... (11'gn orr.); «*eta* ango neska garatu *ta* eder guziak aretaz maiteminduta dabiltzala *ta*; *eta* ango atsegin, eder *eta* neska guziai musin eginik...» (47'gn orr.); e. a.

Iztegia aberatsa da.

Idazkera-kontuan, euskereak, gaurko araukaz ez-bardintasun andirik ez dauko. Oartzekoa da idazleak «y» izkia jartzen dauala guk, gaur, «i» izkia ipiñiko genduken tokian. Adi-bidez:

«nai ta naye...!» > «nai ta nai ez...!»
«zer zitzayon berari...» > «zer zitzayon berari...»

«bañan, sayatuko naiz ni bai...» > «bañan, saiatuko naiz ni bai».

Estonba jaunak eleberri onetan darabilzan elerti-apaingarri batzuk, aipagarriak dira:

- Ots-itzak (edo «Onomatopeya»k): asko, baiña asko darabilz. Oneik bizitasuna damotse idaztiari. Irakurra azaltzen dan egoeran jartzeko lagungarri jakoz irakurteari. Adi-bidez: «*eta* arraitzen *zirri-zarra* gozoa...» (5'gn orr.); «Oyea *kixkurkixkur* egiñik...» (7'gn orr.); «*kaxka-kaxka* oskatzen» (8'gn orr.); e. a.
Bir-esateak: «*betoz* danak, *betoz*, ordu onean...» (17'gn orr.); «Bai... *ik* bezelako begi ederrak zizkiñan, *ik* bezelako gorputzera liraña... Bai, *i* bezelako neska gazte ta ederra unan» (18'gn orr.); «*kupida* zaitez, *Jauna*, zure morroi (...) *Jauna*, beti oso ona (...) *Jauna*, ez bezaidazu (...)», *Jauna*» (20'gn orr.); e. a.

- Aitapenak naiko dagoz eleberrian zear. Idazleak, esan nai dauana, errezago adierazteko darabilz. Adi-bidez: Inaxio kristauaren jazoerak (18-19'gn orr.); Biblia'ko samaritarraren ipuiña (85'gn orr.); euskaldunak, keltak eta iberotarrak Erribera ta Errioxako kondairan (131'gn orr.); e. a.

- Galderak: batez be, zerbait azaldu bear danean agertzen dira. Teknika ona da azalpena azpargarria gertatu ez daiten. Geienak alkarrizketan. Adi-bidez: Izartxo'k Erko'ri Basurdi nor zan diñotsonean:

—Nor? —Erko'k.

—(erantzuna) —Izartxo'k.

Nor arrayok, ba?

—(erantzuna).

Basurdi'k zer...?

(erantzuna).

Eta nor da Basurdi ori?

(erantzuna).

Ta igaz zer...?

(erantzuna).

—... (48-49'gn orr.)

- Aurkaketa. Alegoria naikoa dago eleberri onetan. Au dala ta, idazleak, irudi batzuk darabilz, euren esan-naiekaz barik beste batzuekaz. Irudi oneetan aurkaketa bat agertzen da agiri agirian. Adi bidez: Erko, kristau zintzoa, ta Basurdi, basatia ta sorginkerengan sinismena jarrita daukana; neka-zarritza ta arraintza (52'gn orr.); sorgiñak eta Kristo; e. a.
Textuan, ba dagoz beste apaingarri batzuk be, baina ez ain erabiliak: bardinketak, zenbakuntzak, irudiak, norkigintzak eta atsotitzak.

6. EROMANTIKU KUTSUZKO ELEBERRIA

Eleberri onetan erromantiku kut-sua damotsen ezaugarri batzuk dagoz:

- Lortu-eziñeko maitasuna: Basurdi Izartxo'gaz maitemindura dago; baiña ezinda, ezelan be beragaz alkartu; ta gaiñera, beragana doala, bidean, il egiten da.
- Erljio sentipenak: eleberriaren gaiari dagokionez, ezaugarri au aproposa da. Erromantiku-ezaugarri argi bat agertzen da: Satan, txarkeriaren irudi lez (148'gn orr.)
- Izadi-argazkiak, norkien barruegoereagaz josita dagoz. Izadiaren zeazketak, norkien biotz-eragiña zein dan jakiteko lagundu egiten dabe (25'gn orr.; 158'gn orr.; e. a.)
- Erri literatura erabiltea: eleberri onetan batez be ipuiñak: «Tartalo»ren ipuiña (57'gn orr.); Mari'ren ipuiña (57'gn orr.); Aitor'en ipuiña (164'gn orr.); e. a.
Ez da au arritzekoa, On Manuel'en ipuin-zaletasuna kontuan arturik. Atsotiz batzuk be agertzen dira: «Eguna egunekoentzat eta gaba gabakoentzat» (14'gn orr.); Ilda gero salda bero» (65'gn orr.); «Izena dun guziak izana ere ba du» (1158'gn orr.)

7. EUSKAL-OITURAK

Eleberri au sailkatukeran, irakaspeneko eleberri bat dala esan daiketu, gorago esan dogunez, euskaltasuna ta kristautasuna alkar-konpondu

eziñak ez dirala agertu nai dauskulako. Edo baita kondaira-eleberri bat dala be: Euskalerriko II'gn gizaldiko giroa, kristautasunari dagokionez, azaltzen dauskulako.

Baiña saski-eleberri bat dala be esan daiketu; gai mordo bat azaltzen dauskulako; eta batez be, euskal-oiturari lotuta dagozanak: ezkurretan, ezkur-opilla (5-9'gn orr.); ezti-biltzea (23-31'gn orr.); sagarretan eta sagar-doa (30-40'gn orr.); e. a.

8. EUSKAL-SINESKERAK

On Manuel'ek gai oneri euki eutsan joerea, guziok ezagutzen dogu. Bere ipuiñik geienak be, gai onegaz zerikusi andia dauke (2). Baiña kontuz ibilli bear gara. On Manuel'ek, siñiskera asko, erritik jaso ta, bere era-ra, zertarako darabilzan kontuan arturik, aldatu egiten dauz. Adi-bidez: Kixmi'ren ipuiña; Mari'ren semeak (3); e. a.

Eleberrian agertzen jakuzan beste euskal-siniskera batzuk: eguzki lore (6'gn orr.); basajaun (14'gn orr.); Triku (9,12'gn orr.); Tartalo (52'gn orr.); Olentzero (72'gn orr.); e. a.

9. ERITXIA

Irakurtzeko eleberri atsegingarria dogu «Izartxo». Euskera jatorrean idatzita.

Batzutan, aria jarraitzeko nastetsua: ipuin, oitura, kondaira-zeazketa... batzuk betetzearren sartzen direla *dirudi*; idazleak ori aitatzeko gogo edo barru-bearrizana daukalako.

On Manuel'ek, bere bizi-gai biak, argi erakusten dauskuz eleberri onetan: euskal-izatea ta ,kristau-izatea.

«Bai, jaunak, bai. Aspaldi agindutako, izar berexi ori ikusi dizutet bart. Adu onak gauzka. Aro berri bat asi dugu gaur. Poztu zaitezte danok nerekin» (168'gn orr.).

Aralar'ko mendian,
IZARTXOA jatsi;
«Kisti» guregan dago!
Gugan jaku erantzi!
Urkiola mendian,
IZARTXOa eraitzi;
On Manuel joan jaku:
«Mari» dabil latzi.

BIZKAIAN, BIZKAIKO

ARRITUTA

Joan dan egin baten argitaratu barri dan orri bati begira nengoan, Bilboko Aurrezki-Kutxak erderaz zabaltzen dauan Bizkai-ko «Enciclopedia Historico-Geográfica», 33garren atala irakurten. Lagun batek albotik badiñost: «Zer irakurten ago? Eta nok idatzia dok ori?». Eta nik, eskuetan neukana Urkiolako abadeak, Estonbak, idatzia zala erantzutean, arrituta itxi nindun, entzun neutsanean: «A, bai, Urkiolako abadea, lengo baten il dana». Nire arrimena somatu ebanean, galaratu eban: «Orain amabost bat egun il zoan, Euskalerritik kanpo intzala, antza».

BIZKAITARRAKAZ

Oraindiño ezin siñisturik, banoa amabos bat egun lenagoko egunerokoetara, eta bai, alan zan. Egia zan, egi mingarria euskal-literaturaren maitaleentzat, mingarria euskalzaleentzat. Eta batez be, eriotza orregaz Bizkaiko euskereak maitale zintzo bat galdu dau, eutsan maitasura egitez erakusten ebana. Zelan? Bizkaieraz egin eta idatziz.

Bai, bizkaitarrakaz bizkaitar agertzen jakin dau Estonba giputzak, Bizkaiko euskaldunekaz Bizkaiko euskaldun. Gagozen egunotan ez da gauza utsa, ez da gitxi eskertzekoa. Zorioneko euskera batua dala-ta ez tala, euskerearen eriotza ekarteko arriskuan ez ete gara sartu?

IRAUPIDEA

Atzerri bateko izkuntzalari batek esanak zentzun osozkoa dirudi. Onela diño: «Len berea eban euskereari eusten jakin ez dauan euskaldinak, zelan jakin lei berea eztauan euskera bati eusten? Barri eta arrotz egiten jakon euskera ball irauin eragiten?». Eta ez, bere izkuntzari maitasunik ez deustalako, inguruko erderai atzera eragin eziñez baiño.

Niri neuri, gure inguruan dabilan jokabidea ikusita, arako erri-zapaltzaille andiarena etorten jat gogora. Gizon guztiak sama bat bakarra eukitea gura ei eban, sama ori ebagita, guztiak era batera ilteko.

Euskera batuzale guztiak ez dot esango euskerearen eriotzea nai dabenik. Baiña askoren alegin setatsiak ez ete doaz orretara? Euskera bizia, lekuan lekuko euskera bizia ukatuaz, edo beintzat bizitea nekezko eta gatx ipiñiaz, eta arein ordeaz euskera erkin, bizibako eta il, eta erdizperdi ikasiraiko bat ezarri bearraren bearraz, euskerea itotera, euskerean bizia galtzera doaz.

LEKUA ARTZEN

Euskera bizi bat galdu eta aren ordeaz beste euskera bat, ohea, jarrea balitz, gatx erdi izango litzake.

Baiña euskera bizi bat galtzen dan lekuan, aren utsunea ez dau beste euskera batek betetan, erderreak, alde batekoak edo beste-koak, baiño.

Zuberoko euskerea galtzen dan lekuan, ez da an lapurdiera ez euskera batua sartzen. Frantzesak baiño.

ZORI TXARREKOAK

Onetan Bizkaiko euskerea da, guztien eretxiz, zorigaiztokoena.

Gaur irakurri dot euskal-idazle ugarienetako batek esan dauana. Euskera batuan idatzi, nai bizkaieraz idatzi, euskera jator eta garbian idaztea ei da kontua.

Baiña or zear dabiltzan batzuentzat euskera batutik kanpo euskera jator garbirik ez ei dago.

Olango zentzunbakokeriak esan eta esateraiño eldu gara.

Aitatu dodan idazleak esana da beste au be: «Zuberotar batentzat alperrik idatziko dogu bizkaiera utsean; ez leuke ulertuko». Batu-

zaleen aldizkarietan Zuberoko euskeraz idatzitako olerki eta idazlanak noiz nai izaten dabe abegi ona, eta zabalik atea. Baiña bizkaierazkoak? Iñondik iñora be ez. Pekatu larriegia litzake ori.

Bizkaiko euskerea ez da ola-koentzat euskera. A untzerdera edo aren senideen bat da, izatekotan. Geien geien be, bizkaiera lekuan lekukokeri batzuk aztertze-ko asmotan aintzat artuko dabe: nungu, einbizuz, eta olako uskeri- ren batzuk non ta noraiño esaten diran aztertze-ko.

ESTONBA'REN ERITXIA

Orain galdu dogun idazlea, Estonba jauna, ez gendun jokabide eta eretxi orretakoa. Bizkaiereari bere nortasuna aitortu izan deutso, eta bizkaiera jator eta landu baten idazten alegindu da.

Nik ez dakit noz eta non ikasita. Bizkaiko euskerea entzun eta ezagutzeko erea Bizkaiko abadegeien irakasle izan zanekeo urteak emon eutsen, antza. Batez be, Bilboko Eleiz-barrutiko ikastxeetan. Eta udako opor-egunetan.

Nik badakit neure errian be, Baltzola aldean, emon zituela udako egun asko, ango abadegei baten etxean. An eukan aukerea Arratiako euskerara belarria egi-ten.

Gero Ameriketatik, mixio-errietatik osteratxoa eginda, Urkiolan ebenean abade, or euki dau eskola barri luzeagoa.

ESKER ONA

Eta Urkiolatik ainbat lan bialdu ditu Bizkaiko euskal-orrietara. ZER onen irakurleak badakie ori..

Ez dot nik emendik guztien esker ona biztu bearrik.

Benetako apostolu eta mixiolari lez, guztientzat guztia izan nai eban oni, Bizkaian Bizkaikoa, eta bizkaerazko idazlea izaten alegindu zan oni, biotz-biotzez: Eskerrik asko.

L. AKESOLO

BETI ALAI

Tipi-tapa, plaustplaust, zeure pausuan, zeure zenetik urten barrik, gura zenduan lekura eltzen zenkian.

Bear zan lekuraiño: ez geiago ta ez gitxiago.

Eta azken-ibillaldian, zarata bako «supersoniko» isillean joan! Iñor konturatu barik igesi ziñan! Zelango bizitza, alango eriotza!

IKASLE AITALENA


Gogoz, soiñez baiño gazteago ziñan. 1976'garrean, Bilbo'ko Izkuntza Eskolan, lenengoz euskera sartu ebenean, antxe zengozan neska-mutil gazteen artean, ikasle antzean, aztertua izateko gertu.

Aztertzaileen artean, ba-ziran ziurretik, zure ikasle izandakoak be: baiña, zer zuri?... Zuk, titulua bear zenduan bai eta kitu!...

Zu an ikusteak, an izan zan bat bildurtu egin eban: «Don Manuel'ek, guraiña euskera, latin etab. sobran be jakin ba-dakiz. Baiña, gramatika, aditz-korapillo ta beste saltzak gogoratuko ete ditu?»... Ez ba, lekutara!...

POZ - EMOILLE

Zenbat ikasleri, ez ete dautsozu zure jakituritik emon?... Pozik emoteko doaia zenduala esango



neuke. Eta baita, zeure lanari poza artzekoa be!...

Zeure irribarretxo orregaz, kontu-kontari Euskalerrri zarraren ipuiñak; eusko Ama Lurraren edesti illun eta dizdiratsuak; izadiaren edertasun arrigarriak, bizi ta bizi ereiten zenduzan.

Gure artzulo, artzainaro, lugin eta arrantzaleak: lengo ta oraingo euskal semeak langille ta bertsolariak... Zer ez zenkian?...

Eta esaldien maratillak irakasteko «Goroa» esku artean zeunkala, olan esaten zenduan: «Ia orain, beste esaldi biurriago bat aurkitzen dogun!» Eta azkenean, ziurre-

tik zeure elburu izan ziran Kristo'ren itzok: «Doan artu dozuena, doan emon egizue».

GAISO ALAIA

Urte batzuk dirala, zure osasuna dala ta, arduratuta egoan zure ingurua: «Barruan erabilliko dau berak berea, baiña azaldu ez; beti lez, ezer ez ba'litz lez dabil bere bearretan Don Manuel», iñoan Urkiola'ko zure etxeko batek.

Mikel Zarate joan jakunean, urte gitxitan Ian egin ebala esan zenduan. Beste era baten, baiña antzera ez ete dozu zuk bardin egin? Urte geiagotan baiña lan andia?...

OSPAKIZUNA

Zure illeta-ospakizunean, jendetzat aundia, abade zerrenda luzea Meza-emoille, iru gotzain maipuru zirala.

Eta aldare-buruan idatzitik, zure garaipen-ezaugarri dan au: «Nor igoko da Jainkoaren mendi-raiño? Eskuak eta biotza garbi dituana, gizon guztien lagun dana».

Toki orretatik, lagun zakiguz ba Don Manuel, zuk lez esku ta biotz garbiz lan egin daigun eta egun baten alkar aurkitu!

Maitena'k

ON MANUEL ESTONBA (G. B.)

*On Manuel'en iltea
izpar baltz eta larri,
barri ori artutean
biotzak urduri.*

*Euskeraren arloetan
ziñan guztiz berezi,
zure lan irakurtean
asetuz gure egarri.*

*Ele barri ipuiñetan
ziñala izar argi
gorengo edeslari.
Eten bagarik lanean
omen Urkiolari.*

*Gipuzkoarra ziñala
bizkaieraz ederki,
idatzi dozu geientan
Bizkalko euskalkia.*

*Euskal erri dan danetik
txalo beroak zuri.
Euskal idazlen artean
eredu eta izpi,
askorentzat zu ziñala
benetan bultzalari.*

*Utsune aundi-aundiak
zuk gurean itxiak,
Zaindu zeru goietatik
euskal idazlariak.*

GALLASTEGIK

ALAITASUN-GIROAN

Estonba'tar Manuel jauna, edo «Aita Manuel» maitasunez guztiok esaten geuntson lez, Gaztelu-Elexabeiti edo Artea'ko Abadegai-etxean irakasle ta araubideko arduradun izan zan 1944'tik 1953'ra.

Aldi onetako jazokizun alai batzuk gogoratuko dodaz, bere gomutape-nez.

* * *

EKINTZAZKO IKASKETAK

Legezko Ikaste-Egitarauan agiri ziran gaien osagarri lez. «Ekintzazko Eskolea» asmau eban berak: Ogei ta amar bat ikasle batzen ebazan eta jolas-aldi ta opor-egunetan lan egiten eben. Manuel jaunaren agindupean egiteko lan oneik beti izaten eben iru-dimenezko izen polka.

* * *

Abade-gai etxearen ondotik joian erekatxuari ur-ormea egitea asmau eben eta «Don-Makondoa» jarri jakon izena. An izango eben uger egiteko erea, eta bera uger-zalea zan.

Uretza gertatu ondoren, jardun aldi batzuk egin ebazan zuzendari barik eta eguneko orduak banatzean arau-ordu bat jarri eban: Zelako sabeljokak ormatik uretara jauzia egitean!

Jauzi ori ez eban iñoz buruz-bera egin.

* * *

1950'eko jorraillaren 20'an ekaitz bildurgarria izan zan, aize zakarra ta euria ugari.

Errekatxua aundi egin zan. Solocetara sartu be bai. Orma gaiñetik jausten zan urak zarata aundia egiten eban. Ekaitzak zugatzak eta mendi-zati bat eroan ebazan, baiña ormea geldi! Etxegintzako arauz ba-zituan okerrak, baiña sendo!

Arro egoan Manuel eta Horazio'ren bertso areek gogoratzen ebazan:

Si fractus illabatur orbis

Impavidum ferient ruinae.

Lubira apurtuta jausten ba'da be ondakiñak geldian ikutuko dautsoe.

* * *

Oian-ekintza izan zan beste bein.

Futbol-zelaiaren ondoan, otaz eta matazaz beteriko arlo bat egoan eta berak solo biurtzea asmau eban.



Manuel Esionba jolas-zale.

Ekintzazko Eskolearen talde batek oian orretara sartu eta esku-aurrea baiño garbiago itzi eban.

Baiña oian orretan gaztaña-ondo batzuk egozan eta dindilizka egozan gaztaña-oskolak tentatzaille ziran.

Manuel jauna Kondaira, Lutelesti ta frantzes-izkuntzako irakasle ban, ez zenbakiztian, baiña bardinke-ta oneik jarri ebazan:

1.^a Lan egin + jan ez = gizaundiak.

2.^o Lan egin + jan = Mutil onak.

3.^a Jan + lanik egin ez = Artaxoriak (gorriones = gorriones).

* * *

Tenis-zelaia egitea izan zan Ekintzazko Eskolearen beste lan bat.

Orduan joko ori ez eben ezagutzen gazte areek eta orregaitik euren irudimena berotu egiten eban.

Zelaiaren lurak piper-margozkoak edo gorrizkeak izan bear ei eban.

Ogei ta amar ikaslek ainbat astetako jolas-aldiak igaro ebezan teillak birrinduten.

Asko poztu ziran tenis-zelaia egin-da ikusi ebenean.

Ostikoketa edo futbol zelaia, ate ta guztikoa, egitea izan zan Eskola onen urrengo lana.

* * *

Eguneko gizartetik mutillak bigu-
negiak etozala uste eban Manuel jau-
nak eta euren gogoia sendotu egin
bear zala bizitzak dauzan aldapak
igoteko lain izan zeitekezan.

Orretarako goizero soinketa-eki-
ñaldia ezarri eutsen: Baraurik, egual-
di ona izan naiz lei baltza izan, guz-
tiak joan bear eben soinketara, orre-
tarako jazki bereziak baiño beste eze-
lako jantzi barik.

Eta zori txarrekoak barruan beste
jazki batzuk ebezela etorten zirak-
nak

Ordu-lauren soinketeari ekin ondo-
ren, etxepera joan eta ur-atsa edan
bear izaten eben barausteko eskubi-
dea izateko.

Arratiar bat, zurra bera, ogean ge-
ratzen zan gaisorik egoalakoan. Bein
baten Manuel'ek au jakin eban: Mutil
ori, soinketa-txistua entzuten eba-
nean *jan-tokira joaten zala eta an*
egozan kafe-eznedun katillu bakoit-
xetik zurrutatatu bat egiten ebala,
iñok igarri ez egiteko lez.


Manuel'ek ori jakin ebanean ogera
bialdu eban, berak baimena emon ar-
tean ez jagitekotan.

Soinketa ta ibillaldiak mendira egi-
ten ziranean, arnasea sakon artzeko
esanten eban, «ogei neurkin (litro)»
dei egiñaz.

Eta berak ziurtatzen eutsen soinke-
ta beti egiten ba'eben, gizonari dago-
kiozan 120 urteetara elduko zirala.
(Eta 66 *urtekoa il da bera*).

* * *

Izadi-zalea zan Manuel eta Artea-
inguruan mendi asko dagoz.



Urkiola'n sendi-giroan.

Igandeetan aukera bi izaten ziran:
Ibillaldi laburra Aurelio jaunagaz eta
luzea Manuel'egaz. Onek beti ebazan
bera laguntzaille ziurrak, gero ibillal-
di luzeak zelakoak izan ziran esateko
gertu. Sarritan egiten ebezan ibillaldi
luzeak, askaria aldean ebela.

Ospetsuena garizuma-aurreko
igandekoa izaten zan. Lukainka osoa
eroaten eben ogi-barruan, txitxi-bur-
duntzi egiteko, basoan oteaz eta beste
egur batzukaz egindako su-gaiñean.

* * *

Artean ustebako basora-aldiak
arratsaldeetan noizean bein izaten zi-
ran, eta gaztetxuak pozik artzen ebe-
zan. Batzutan *egun ona agertzen za-*
lako eguen arratsaldeetara aldatzen
ziran ikastaldiak (Urte areitan eguen
arratsalde guztiak izaten ziran opor-

egun eta larunbat osoan lan egiten
zan).

* * *

Kondaira ta lutelestiaren irakasle
izan zan urte askotan, baiña beti as-
ten zan Euskalerriko gaia azalduz.

Ikasle bat eukan, zurra baiña
arrotxua. Azken-azterketan **D.** Ma-
nuel'ek irakaspen bat emon gura izan
eutson:

Non dago Badaia mendi-katea?
Australia'n-edo.

Ez gizona, ez. Arabako zelaietan
baiño.

Osakaitzat «suspensio» irabazi
eban, naizta Manuel «suspensio»-za-
lea izan ez, boitz-biguna baiño.

DUO'TAR SANTIAGO'ren
jakingarriak

SAMINTASUNA

D. Manuel'en eriotzeak benetako samintasuna emon dauku.

EUSKERAZA LEAK ALKARTEA'n lankide izan genduan, batez be ZER gure Aldizkarian egin dauzan lanen bidez eta Euskal-Jakintzari buruz izan genduan Aste aretan emon eban berbaldiaz. «Itxasoa ta euskaldunak izan zan gala.

Adiskide, laguntzaille ta adore-emoille izan dogu gure lan eta estualdietan.

Bidezkoa da ba, une onetan gure samintasuna agertzea.

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couñe eu moztos

Zerre motea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**